

Lagun egiteko

animaliak edukitzeari

buruzko

aholkuak



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE AGRICULTURA, PESCA
Y ALIMENTACIÓN

GIPUZKOAKO
ALBAITARIEN
LEGEZKO
ELKARTE
GORENA



ILUSTRE
COLEGIO
OFICIAL DE
VETERINARIOS
DE GIPUZKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

eduki · arduraz





GIPUZKOAKO
ALBAITARIEN
LEGEZKO
ELKARTE
GORENA



ILUSTRE
COLEGIO
OFICIAL DE
VETERINARIOS
DE GIPUZKOA





Lege oharra: argitalpen honetako edukiak berrerabilgarriak dira, betiere iturria eta, hala dago-
kionean, azken eguneratzearen data zehaztuta.



NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA

Argitaratzailea:
©Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa, Idazkaritza Nagusi Teknikoa
Argitalpenen Zentroa

Banaketa eta salmenta: Paseo de la Infanta Isabel, 1
28014 Madril
Telefonoa: 91 3475541
Faxa: 91 3475722

Estatuko Administrazio Orokorraren Argitalpen Katalogoa: <http://publicacionesoficiales.boe.es/>

Denda birtuala:
www.mapama.gob.es
centropublicaciones@mapama.es

NIPO: 013-18-016-8 (paperean)
NIPO: 013-18-007-1 (lerroa)
Lege gordailua: M-2133-2018

Datu teknikoak. Formatua: 21x21 cm. Osaketa: zutabe I. Tipografiak. Atariaurreko izenburuak: Hero (Regular), 35 pt. eta Allura (Regular)
63 pt.; kapituluen izenburuak: AvantGarde Bk BT (Book), 20 pt.; testuaren gorputza: AvantGarde Bk BT (Book, Demi), 12 pt.

2018KO URTARRILA

Aurkibidea



Sarrera 08



Eduki al dezaket lagun egiteko animalia bat? ... 11



Zein da niretzako maskotarik aproposena? .. 23



Non eskura dezaket? 31



Zer beharrian ditu? 41



Lagun egiteko animaliak gizartean..... 53

Sarrera



Lagun egiteko animaliek toki nabarmena dute gaur egungo gizartean. Halako animalia bat izateak **eragin onuragarriak** izan ditzake pertsona askoren bizitzan; izan ere, **lagun egiteaz gain, harreman sozialak** indar ditzake, baita **erantzukizun sena** edota **ariketa fisikoa** sustatu ere. Baina lagun egiteko animalia bat edukitzea **gatazka iturri ere izan liteke**, dela bizi den etxearen barruan, dela handik kanpo. Eta horrek arazoak eragin ditzake jabearentzat eta animaliaarentzat.

Helburua

Gida honen bitartez, informazioa eman nahi diegu **lagun egiteko animalia bat eduki nahi dutenei**, erabakia arduraz har dezaten. Helburua da animalia-aren beharrezko erantzuteak dakartzan **betebeharrak betetzea** eta **arriskurik ez sortzea**, ez jabeari, ez beste pertsona eta animalia batzuei, ez ingurumenari.

Animalia bat lortzea nahiko erraza da, baina horretarako baldintza egokiak betetzen ditugun ikusi behar dugu. Hobe da lagun egiteko animalia bat edukitzeko **erabakia atzeratzea**, gero hura **abandonatzea** baino. Animalia bat lortzea nahiko erraza da, baina horretarako baldintza egokiak betetzen ditugun ikusi behar dugu. Horregatik, gida honen bidez, **animaliak egoki hautatzeko** irizpide orokor batzuk eman nahi ditugu, bai eta haiek ondo zaintzeko laguntza eman ere.



Lagun egiteko animalia bat **erantzukizunez** edukiko dugula bermatzeko, **bost elementu** erabakigarri hartu behar dira kontuan. Guztiak dira garrantzitsuak eta lotuta daude elkarren artean, eta **denbora** eta **ahalegin** egokiak eskatzen dituzte.



Eduki al dezaket lagun egiteko animalia bat?



Zein da niretzako maskotarik aproposena?



Non eskura dezaket?



Zein dira haren beharrezkoak?



Lagun egiteko animaliak gizartean

Hona hemen elementu horiei lotutako hainbat alderdi.

Gida honetan,



hitza erabiliko dugu, bai animalia bat **erosteaz** ari garenean, bai **adoptatzeaz** nahiz **oparitzeaz** ari garenean.



eduki

al dezaket lagun egite-
ko animalia bat?



Eduki al dezaket lagun egiteko animalia bat?

Animalia baten kargu egin aurretik, hainbat galdera egin behar dizkiogu geure buruari, eta horiei zintzo erantzun.

Maskota bat edukitzeko nahia izan daiteke edozein **traba gainditzeko** eta horretarako behar diren bitartekoak jartzeko akuilu, baina, erabaki zuzena hartzeko, ondo aztertu behar da egoera.



Zergatik nahi duzu lagun egiteko animalia bat?

Hauexek dira motibaziorik ohikoenak:

Seme-alaben nahia asetzeari

Animalia zaintzeko erantzukizuna zurea izango da. Beraz, **animaliarik eduki nahi ez baduzu, hobe duzu erabakia atzeratu**, harik eta zure seme-alabak hartaz arduratzeko gauza izan arte.



Konpainia edukitzea

Pentsa dezakezu maskota batek **lagun egingo dizula** bakarrik zaudenean. Baliteke egia izatea, baina egia da, era berean, posible dela animalia batek **zure itxaropenak ez betetzea**, bereziki pertsona jakin baten hutsunea sumatzen baldin baduzu.

Pena eman dizu abandonatuta ikusi duzun animalia batek

Pentsatu **ez diozula onik egingo** animaliarri etxera eramanda, ondoren **ezin baduzu egokiro zaindu**.

Animalia polit bat ikusi duzu

Film batean edo telebistako programa batean ikusi duzu, edo ospetsuren batek halako bat dauka, eta zuk ere nahi duzu bat. **Ez da ideia ona animalia bat modu konpultsiboan erostea**. Animalia horrek ez zaitu egingo inoren antzeko. "Bat-batean" gustatu zaizun bezalaxe, gerta liteke berehalaxe aspertzea ere.

Txakur bat nahi duzu zure etxea defendatzeko edo lapurrez ohartarazteko

Kontuan izan **animalia mota hori eta hari emandako heziketa bateraezinak** izan litezkeela etxeko ohiturekin eta haurrekiko tratuarekin, eta gerta liteke manei berezia behar izatea. Halaber, ezin duzu animalia bat eskuratu hark dakartzan onurengatik bakarrik, gero ez bazara gauza beharrian guztiak asetzeko.



Izan al dezakezu animalia bat zure ardurapean datozen 10 edo 15 urteetan?

Hala ez bada, eta ez badakizu nolakoa izango den zure bizitza luzera begira, pentsatu ondo.

Kontuan izan egon daitezkeela ezusteko aldaketak bizitzan, eta horrek **aldatu egingo dituela** gure eguneroko ohiturak. Esate baterako, seme-alabak izatea, etxebizitza aldatzea (baita herrialdea ere) edo lana galtzea.

Gauza izango gara animalia horrekin hartutako konpromisoari eusteko?

Uste baduzu ez dela posible, **boluntario egin zaitzete animaliak babesteko elkarte batean**, harik eta egoera egonkorragoa izan arte; hala, **lagun egiteko animalia baten** konpainia izango duzu astean egun batzuetan, modu ohikoan, baina urte luzeetako konpromisorik hartu beharrik gabe.



Konforme daude zurekin bizi direnak? Denek onartuko dute animalia?

Animaliak **zure etxea partekatuko du** bertan bizi diren guztiekin, eta espazio fisikoa ez ezik emozionala ere hartuko du, behar dituen zainketengatik. Hala, aparteko lana ekarriko du eguneroko egitekoetan. Erabakia ez badago guztion artean adostuta, hobe da itxarotea.

Kon-
tuan izan
behar duzu
animaliarekin
batera biziko den
personaren
batek


... **alergia** ote dien animaliei.

... **higuina** ote dion eta ezin duen jasan ilerik etxean.

... **fobia** ote dien animaliei, oso beldurtia izaki.

Guztiok ados baldin bazaudete, aurrez ezarri bakoitzak zer **erantzukizun** izango duen **maskota zaintzeko** eta artatzeko: elikadura, paseoak, albitariaren bisitak eta abar.

Gogoan izan gainerako senitartekoak eta lagunak ere; ; izan ere, pertsona guztiek ez dute gustuko espazioa animaliekin partekatzea, eta **horrek eragina izan dezake pertsona horiekin duzun harremanean**, bisitei eta elkartzei dagokienez, esaterako.





4. Baduzu behar beste denbora animalia bat hezteko eta zaintzeko?

Txakur bat nahi baldin baduzu, jakin behar duzu **animalia sozialak direla izatez** eta beharrezkoa dutela beste pertsona eta animalia batzuekin kontaktua izatea; halaber, ezinbestekoak dituzte kanpo estimuluak ere. Hori dela eta, ez da nahikoa egun osoan patioan, terrazan edo lorategian edukitzea, oso handiak izanagatik ere. Egunean bizpahiru aldiz atera behar dira paseatzera.



Itxuraz animalia batzuek zainketa handirik eskatzen ez badute ere (**kaiioletan, arrain ontzietan edo terrariumetan daudenek**), **denbora pixka** bat eman behar da astean ura edota lurra aldatzeko edo garbiketa lanak egiteko, edota hilabetean behin iragazteko eta elikatze sistemak mantentze eta berrikuspen lanak egiteko.



5. Informatu zara animalia bat edukitzearen kostuari buruz?

Informatu eta kalkulatu. Animalia batek hainbat **gastu finko** izan ohi ditu, kontuan hartu beharrezkoak, inondik ere: elikadura, albaitariarenera egindako bisitak, botikak, osagarriak...

URTEKO MANTENTZE KOSTUA¹

Osasuntsu dagoen animalia baten urteko mantentze kostua



KOSTUA:

arrain ontzi/terrarium batenak

Uraren kostua

aldian-aldian berritzea

Energiaren kostua

iragazkien funtzionamendua

uraren temperatura gordetzeko sistemak

elikadura eta zainketak



Horrez gain, sor litezkeen **aparteko gastuak** hartu behar dituzu kontuan (kirurgiak, oporraldi-tako txakur egoitzak, trebakuntza, aseguruak...). Animalia batzuen kasuan, **aseguruia nahitaezkoa da**; hala, **gastu finko** bilakatzen da.

¹ Análisis y caracterización del sector de los animales de compañía" MAPAMA 2015. http://www.mapama.gob.es/es/ganaderia/temas/produccion-y-mercados-ganaderos/20160222_informeestudioparapublicar_tcm7-414111.pdf

6.

Bateragarria da animalia bat edukitzea zure eguneroko bizi ohiturekin?

Aztertu ea zure bizimoduak

uzten dizun animalia bat edukitzen; izan ere, **denbora eta prestasuna eskatzen du, egunero-egunero**, paseorako, elikatzeko eta zainketetarako.



Agian, **familiako edo laneko** betebeharreran bakarrik pentsatu duzu, baina ez duzu baldintzatu nahi **denbora libre**a. Asko gustatzen bazaizu bidaiatzea edo maskotarekin egin ezin duzun jardueraren bat praktikatzea, pentsatu prest ote zauden denbora horren zati bat sakrifikatzeko eta lagun egiteko animaliarekin inbertitzeko.

Bidaietan,

eraman ezin baldin baduzu, pentsatu konfiantzazko zer pertsonak zainduko duen, edota kalkulatu zenbat kostatuko zaizun **baimendutako egoitza** batean uztea eta ordaintzeko modurik izango duzun



7.

Badakizu zer arau bete beharko dituzun?

Animalia bat eskuratu aurretik

ziur egon behar duzu **ez dela arazo bat izango** eta gauza izango zarela (...) betetzeko **bizilagunen erkidegoko arauak** eta zuri eragiten dizuten **udal ordenantzak**.

Eskuarki alokairuan bizi bazara,

kontuan izan kasu asko eta askotan **kontra-tuek** berariaz galarazten dutela **animaliak edukitzea**.



8.

Gehiegi arduratzen zara edo garrantzi handiegia ematen diozu etxeko garbitasunari?

Animalia bat baduzu,

kasu asko eta askotan, denbora gehiago eman beharko duzu etxea garbitzen, lehenengo garbitasun maila berari eutsi nahi badiozu.





Txakurkume batekin pentsatzen ari bazara, badakizu zer zainketa behar dituen?

Txakurkumeak erakargarriagoak izan ohi dira

baina dedikazio berezia behar dute, hainbat astez, eta, batzuetan, hainbat hilabetez.



Erantzun idatziz galdera horiei guztiei, irakurri eta **hausnartu** ondo une egokia ote den lagun egiteko animalia bat edukitzeko.

Zalantzarik baduzu, hobe ez erostea eta erabakia atzeratzea

Inoiz ez baduzu animalia bat eduki,

halakoak dituzten lagunen etxera joan zaitezke, eta baten kargu egin egun batzuetan; halaber, boluntario egin zaitezke animaliak babesteko zentro batean denboraldi batez, eta, hala, izango duzu **esperientzia animaliekin**, ikusteko ea bat ote datorren haiei buruz lehen zenuen ideiarekin.



Norbaiti animalia bat oparitzekotan zabilta?

Inoiz ez diozu

animaliarik oparitu behar lagun bati ezusteko bat emateko, opari ona iruditzen zaizulako edo pentsatzen duzulako bat eduki nahiko lukeela.



Maskota bat edukitzeak norberaren konpromisoa eskatzen du

eta, beraz, alde aurretik hausnartutako erabaki bat.



Animalia eduki behar duen **personak egin behar du gogoeta gida honetan jasotako alderdiei** buruz. Ez bazaude ziur hausnarketa egin duen ala ez, eta ez badaukazu alde aurreko baimenik ez baduzu,

ez oparitu animaliarik.



Zein da
niretzako maskotarik
aproposena?



Zein da niretzako maskotarik aproposena

Hausnarketaren ondotik iruditzen bazaizu une egokia dela, ondoen etorriko zaizun **animalia aukeratzeko** garaia da.

Animalia bat itxuraren arabera aukeratzea

sekulako akatsa da, pertsona bat itxuragatik hautatzea bezalakoxea.



Txakurra ala katua?

Lagun egiteko animaliarik ohikoenak direnez, haien arteko zenbait desberdintasun nabarmenduko ditugu, bat ala bestea aukeratzeko garrantzitsuak izan litezkeenak, lehentasun pertsonaletatik harago:



Txakurrak

- ▶ **Konpainia** gehiago eskatzen dute.
- ▶ Egunean bizpahiru aldiz **paseatu** beharra daukate.
- ▶ Txikienek ere katuek baino **espazio gehiago** eskatzen dute bizitzeko.



Katuak



- ▶ **Independenteagoak** dira, eta bizi daitezke etxe barruan, **giro estimulatzailea** baldin badaukate.
- ▶ **Espazio gutxiago** behar dute bizitzeko.
- ▶ Katuak **lurraldekoiagoak** dira txakurrak baino. Katuaren ikuspegitik, etxea "beraren" etxea da. Gainera, **etxez aldatuz gero, gehiago nozitzen dute**; beraz, bizileku egonkorrik ez baduzu, kontuan izan beharko duzu alderdi hori.



Txakurkumea ala heldua?



Jakin behar duzu **txakurkumeak denbora gehiago** eskatzen duela, jaten emateko, zaintzeko, irakasteko eta egokiro **sozializatze**ko. Garrantzitsua da **pazientzia** izatea, bazterrak hautsiko eta zikinduko baititu etxean, harik eta oinarrizko arauak ikasi arte. **Txakur helduak** lasaiagoak izan ohi dira, eta, egokiro **sozializatu** badituzte, **ederki asko egokitu** litezke zure etxera.

Katuen kasua antzekoa da: **katakumeek** giro estimulatzailea izan behar dute etxean, behar den moduan haz daitezten. Eta helduen abantaila zera da, izaera sendotua dutela; beraz, harekin elkarreraginean jardunda jakingo duzu zurekin bateragarria den ala ez.



Ez da gomendagarria

adineko pertsonak txakurkumeak edo katakumeak eskuratzea, energia handia izaten baitute, bai eta **ariketarako eta jolaserako** premia handiagoa ere.

3.

Arra ala emea?

Eskuarki, **arrak handiagoak** izan ohi dira emeak baino, gerneru arrasto txikiak utzi ohi dituzte **lurraldeak markatzeko** eta baliteke **esana ez aditzea** inguruan emeak baldin badabilta.

Aldiz, **emeek** aldian-aldian **araldia** izan ohi dute (urtean bizpahirutan, txakurren eta katuen kasuan). Hainbat aste iraun ohi du araldiak, eta, bitarte horretan, **urduriago** agertu ohi dira, **gutxiago aditzen dute** esana eta baliteke **zaunka edo marraka maizago** egitea.



Nahi gabeko kumaldiak izan ohi dira animaliak **abandonatzeko** arrazoi nagusietako bat. **Pentsatu** komenigarria ote den zure maskota antzutea. Kontsultatu gida honetan antzutzeari buruzko atal berezia.



Arraza garbia ala mestizoa?

Eskuarki, **arrazak garbiko** animaliek hainbat **ezaugarri espezifiko** izan ohi dituzte, dela itxurarekin lotuak, dela portaerari dagozkionak. Hori dela eta, zure nahiaren eta egoera pertsonalaren arabera hauta ditzakezu animaliak. Hainbat txakur arraza **hobeto prestatuta daude klima edo jarduera jakin batzuetarako**, hala nola korrika edo igeri egiteko; halaber, gehiago egokituago daude erabilera espezifiko batzuetara (zaintza, abereak zaintzea, hurrekiko tratua, laguntza...).

4.

Pentsatu behar duzu zer jarduera egingo dituzun harekin

horretarako animaliarik egokiena aukeratzeko



Baliteke arraza garbiko animaliek hautespen genetikoari lotutako osasun arazoak izatea, bereziki hautespen hori oinarritzko arau batzuk errespetatu gabe egin bada. Komeni da animalia eskuratu aurretik jakitea eta kontuan izatea hori; izan ere, kostu ekonomiko eta emozional handia ekar dezake alderdi horrek.

Funtsezkoa da

maskota hori berme guztiak eskaintzen dituen **legezko hazle bati hartzea, gaixotasun** horiek garatzeko aukera arriskua minimizatzen.

Aldiz, **animalia mestizoak** (hainbat arraza nahasian dituztenak) **gogorragotzat** jotzen dira: albaitarien tratamendu gutxiago behar dituzte, **luzaroago** bizi dira eta **eskuratzen kostua eta ez dira garestiak**. Gainera, pentsatzen da haien **izaera eta portaera** ez daudela estandarizatuta, eta, hortaz, **ez dira horren aurreikusgarriak**.

Katuen kasuan, osasunean eta portaeran dituzten aldeak neurri txikiagoan daude arrazaren mende, eta batez ere **itxura fisikoa** eta **eskuratzen kostua** aldatzen da gehien **arrazak garbikoen** eta **mestizoen** artean.

Nolanahi ere, animalia tratatzeko modua eta ematen diozun heziketa erabakigarriak izango dira haren portaerarako.



5.

Handia ala txikia?

Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat **neurria** da, bakarrik ez **eskura daukazu espazioagatik eta jardueragatik**; izan ere, zenbat eta handiagoa izan animalia, orduan eta janari gehiago beharko du. Eta, horrenbestez, **handiagoa** izango da **hura mantentzeko kostua** ere.

Gainera, **animalia handien** kasuan, arduradunak behar beste **abilezia eta indar fisiko** izan beharko du animalia kontrolatzeko.



Gainera, erabat **debekatuta** dago

espezie inbaditzaile bateko animaliak edukitzea, eta hori ere kontuan eduki beharra dago



Hori guztia dela medio,

ezinbestekoa da araudia ezagutzea, erabaki bat hartu aurretik.

Animalia potentzialki arriskutsua da? Espezie inbaditzaile batekoa da?

6.

Badira **hainbat animalia** (espeziea eta neurria direla eta) **potentzialki arriskutsuak** direnak, **indarrean den legeriaren** arabera. Zehazki, bada arriskutsutzat jotzen diren txakur arrazen zerrenda bat. Bestalde, badira ezaugarri jakin batzuk dituztelako edo lehendik erasoren bat egin dutelako potentzialki arriskutsutzat jotzen diren txakurrak ere.



Animalia horiek edukitzeko,

beharrezkoa da **hainbat baldintza bete behar dira**, hala nola: halakoak edukitzeko **lizentzia** eskuratzea, gaitasun fisikoaren eta egokitasun psikologikoaren **ziurtagiriak** izatea, eta erantzukizun zibileko **asegurua** edukitzea, besteak beste.

7.

Lagun egiteko lehendabiziko animalia dut, ala badut lehendik ere esperientzia?

Animalia bat **lehendabizikoz** erosi behar duten pertsonak edota haur txikiak dituztenek **maskota orekatu bat erosi beharko lukete, hezten erraza**.

Aurretik **animalia baten ardura izan baduzu**, agian errazago egingo zaizu **sozializazio eta heziketa ona** lortzea, eta hobeto prestatuta egongo zara **izaera zailagoa** duten animaliak **arduraz edukitzeko**.



Hainbat txakur arraza eta haien gurutzaketak,

haien izaera **dominatzaileak edo urduriagoak direla eta**, ez lirateke aukeratu behar, aldeztu aurretik txakurrekin **esperientziarik izan ezean**.



Non
eskura

dezaket?

Non eskura dezaket?



Erabakigarria da animalia non eskuratzen duzun. Zuretzat prozesu osoko minutu batzuk bakarrik izan arren, gerta liteke erabateko eragina izatea animalia askoren **ongizatean**; izan ere, toki batean edo beste batean eskuratzeak esan nahi du animalien **legez kanpoko trafikoa eta tratu txarrak bultzatzea** edota **hazle baimenduei babes ematea**, hau da, **lana legez eta arduraz** egiten duten erakundeei laguntzea.

Animalia eskuratzean, gogoratu informazioa eskatzeaz.



Animalien jatorriaren nukleo zoologikoaren erregistro zenbakia (hazlearena, animaliak babesteko denda edo zentroarena).



Espezia, arraza, barietatea, jaiotze data, sexua eta gorputzeko seinale-nagusiak.



Bizi itxaropena eta animaliak heldutan izan dezakeen **gehieneko neurria**.



Animaliaren **ezaugarriak, izaera eta bizitasuna**.



Arraza garbiko animalietan, animaliaren **pedigria** nahi baduzu, gomendagarria da erosi baino lehen izapideei buruzko informazioa eskuratzea, arraza horren liburu genealogikoa kudeatzeaz arduratzen den elkarte aitortura jota².



Bestalde, **potenzialki arriskutsutzat jotzen diren animalien kasuan**, gogoratu eskuratu aurretik beharrezko **baimen** guztiak izan beharko dituzula.



Zalantzarik baduzu edo emandako informazioa garbi ez baduzu,

kontsultatu al baitariari oker aukeratu baino lehen

² Kontsultatu liburu genealogikoak kudeatzeko ofizialki aitortuak dauden elkarten zerrenda: <https://servicio.mapama.gob.es/arca/download.html?id=259509&contentType=application/pdf>



Honako hau da eskatu eta jaso behar duzun dokumentazioa:

- **Erosi** egin baduzu,, eskatu **faktura** (zuzenean eman ez badizute, eskatu eta gorde). Hala, **erreklamatu** ahal izango duzu, animaliak ezkutuko lesioren bat edo gaixotasunen bat badu, edo ez baldin bada eros- teko garaian agindu zizuten arrazakoa. Kontuan izan, anima- lia bat erosteko garaian, beste edozer erostean ditugun **eskubide berberak ditugula erosle gisa.**



Hartu susmo txarra

baldin eta, **arazoak** izan direla eta, zuk aukera tutako animalia den beste bat eskaini badizute, erreklamaziorik jar ez dezazun.



- Adopzio kasuetan, **adopzio kontratua** jaso beharko duzu. Eta partiku- larren artean, baldin bada, berriz, dokumentu bat eskatu beharko- duzu, animalia lagapena egiaztatzeko.

- **Identifikazioa egiaztatzeko dokumentazioa.** Animalia zure datuekin erregistra dezaten, eskatu babes zentroari, haztegiari edo dendari jabe aldaketa dagokion erregistroan egiteko.

- **Dokumentu ofiziala (osasun kartilla edo pasaporte),** datu hauek biltzen dituena: **albaitariak egindako esku hartzeak** (txertoak, desparasitazioak), baita autonomia erkidegoaren arabera beharrezkoak **diren tratamenduak eta txertoak** ere.



Dokumentu horrek

tratamendua egin duen **albaitariaren** sinadura eduki behar du.

- Arraza garbiko animaliak badira eta, **pedigria** nahi baduzu, **karta genealogikoa**, arraza hori kudeatzeaz arduratzen den erakunde ofizialki aitortuak emana



Gogoratu posible dela animalien legez kanpoko mer- kataritzaren eta tratu txarren kontra borroka egitea

erosketa arduratsuaren bitartez.

Animalia hautatzeko, batez ere bi ezaugarri erreparatu behar diezu: portaerari eta osasun egoerari.



1.

Portaera

Txakurkume bat eskuratzea erabakitzen baduzu, erosi aurretik eskatu hazleari **animalia amaren alboan ikusi nahi duzula**. Hala, ez duzu eskuratuko amarengandik garaia baino lehen banandutako txakurkume bat, eta saihestu egingo dituzu horrek animalia-arentzat zein zuretzat izan ditzakeen osasun arriskuak, bai eta animaliak izan ditzakeen **portaera arazoak** ere. Txakurkumeek amaren alboan egon behar dute gutxienez lehendabiziko bi hilabeteetan.



Txakurkumea **denda** batean baldin badago, galdetu haren **jatorriaz** haren ezaugarriak zein diren, eta saiatu haren aurreko **historiaren** berri izaten, **sozializazio egokia** izan duela bermatzeko. **Egiaztatu** animaliak **interakzioan jarduten duela, laztantzen** uzten duela eta **aktiboa** dela.

2.

Osasun egoera

Egiaztatu animaliak **ez** duela inolako **gaixotasun sintomarik**, hala nola begi negartsuak, doministikuak, eztula, gorakoa, beherakoa, urratu gehiegi, ilearen itxura txarra edota oso argal egotea.

Katuen kasuan ere, tankerako ezaugarriei erreparatu behar zaie. Hala, **katu osasuntsu** bat tente egoten da, eta pozik ibiltzen da. **Ileak leun eta distiratsu** egon behar du, korapilatu gabe. Bestalde, **larruazalak ez du eduki behar** eremu **ezkatatsurik edo zauririk**.



Animaliak eskuratzeko tokiek agintaritza eskudunak erregistratuta egon behar dute.

Animaliak eskuratzeko, toki hauetara jo daiteke:

1.

Animaliak babesteko zentro batera.

Egoera horretan animalia ugari izaten direnez, **aukerarik onena** aldeztu aurretik **abandonatutako animalia** bat eskuratzea da. Gainera, halakoak **ugari direnez**, zure nahietara eta bizi estilora egokitzen den bat topatu ahalko duzu. Babes zentroko **langileek** bikain **ezagutzen dituzte** animalia bakoitzaren **ezaugarriak eta izaera**, eta zure beharretara ondoen egokitzen den animalia **hautatzen lagunduko dizute**.

Uste izan da abandonatutako animalia bat ezin dela izan maskota perfektua. Okerra da uste hori, ondo aukeratuz gero. Zaintzeko eta maneiatzeko irizpide egokiekin, hala dela ikusiko duzu.



2.

Haztegi edo denda batera.

Haztegi edo dendara iristen zarenean, **egiaztatu** baduela **establezimendua-ren erregistro zenbaki ofiziala**.

Gogoratu haztegi edo denda on batek interesa agertu behar duela zure inguruabar pertsonalez, haietara ondoen egokitzen den animalia **aukeratzen laguntzeko**, eta xeheki azaldu behar dizula haren ezaugarriak zein diren, zer zainketa behar dituen eta zer erantzukizun hartzen duzun.



3.

Internet bidez.

Baldin eta **Interneteko iragarki batean** topatu duzun animalia bat eskuratu nahi baduzu, gogoratu **prozesuak** aurrez aurreko erosketetan bezalakoxea izan behar duela; hau da, haztegi edo denda batean eskuratuko bazenu bezala.

Internet izan liteke informazio bide bat, baina, zure intereseko animalia bat edo establezimendu bat topatu ostean, **bermatu** behar duzu **iturria legezkoa dela**, baduela **nukleo zoologikoaren erregistro zenbakia** eta **animaliak** betetzen dituela **deskribatutako osasun eta portaera ezaugarri guztiak**. Ez da onargarria animalia bat erostea Interneten ikusitako argazki batean bakarrik oinarrituta eta telefonoaren beste aldetik edo posta elektronikoz eman diguten informazioa kontuan hartuta, non eta ez dagoen bestelako bermerik; animalia ez baita "enkargatu" behar pizza bat edo etxera eramateko bestelako kaxa bat eskatzen den bezala.



Garbi izan behar duzu

animaliaren prezioak atentziora ematen badizu, ziur-ziur ez dituela beteko berme guztiak. Halakoetan, ohikoa izaten da honako **arazo** hauek agertzea:

1. GAIXORIK DAUDEN ANIMALIAK: **are** eskuratu eta egun gutxiren buruan hiltzen direnak, oso gaztetan eraman dituztelako, ez dituztelako beharrezko txertoak jaso edo ez delako txertoek eragina izateko denborarik izan.



2. PORTAERA ARAZOAK DITUZTEN ANIMALIAK, hala nola banantzeak eragindako antsietatea, beldurra edo oldarkortasuna amarengandik goizegi banantzeagatik; lehen begiratu batean nabarmentzen ez diren arazoak, inondik ere.

Albaitariaren kostua eta kostu emozionala

kasu horietan, handiagoa izango da lortzea pentsatzen duzun aurrezki baino



4.

Partikular batengandik

Lagun egiteko animalia asko partikularrei erosten bazaizkie ere, **bitarteko hori ez da gomen-dagarria**, pertsona horiek **ez baitituzte eskaintzen** baimendutako haztegien edota legez aitortutako adopzio zentroen bermeak.

Halere, hala eskuratuz gero, batez ere animalia alde batera uzteko asmoa duen norbait ezagutzen baduzu, **alda itzazu animaliaren jabearen datuak**; izan ere, galduz gero, aurreko jabearengana joko dute.


Baduzu

eskuratu nahi duzun **animaliaren jatorria** legezkoa ote den, eskatu **aholkularitza** zure udalerriko **albaitaritza zerbitzu ofizialean** edo **Udalean**, han adieraziko baitituzte abandonatutako animalien zentroa, haztegia edo interesatzen zaizun denda legez ezarrita dauden.



Zer
beharrizan

ditu?



Zer beharizan ditu?

Lagun egiteko zure animalia **baldintzarik onenetan** edukitzea, beharrezkoa da **hainbat neurri hartzea**; haietako batzuk (identifikatzea, adibidez) behin bakarrik hartuko dira animalia biziaren bizitzan; eta beste batzuk, berriz, egunero-egunero, hala nola elikadura egokia ematea edo paseatzera ateratzea (txakurren kasuan).

Hortaz, **zainketetarako errutina bat** finkatzen baduzu, hala nola albaitariaren bisitak egun seinalatu batekin batean egitea (animalia biziaren edo zure urtebetetze-egunean, adibidez), guztia **errazagoa** izango da, eta, hala, animaliaz lasai gozatu ahalko duzu.

Lehen-dabizi

joan zaitez albaitariarenera, hainbat kontuz informatzeko:

- ▶ identifikazioa,
- ▶ txertoak eta desparasitazioak,
- ▶ elikadura,
- ▶ bizilekua,
- ▶ heziketa eta portaera,
- ▶ antzutzera,
- ▶ ariketa.

Bakar-bakarrik **albaitari batek** egindako **gomendioei eta aholkuei jarraitu**. Zure bizilagunengandik, beste animalia batzuen jabeengandik edota Interneteko foroetatik jasotzen duzun informazioa, nahiz eta asmo onekoa izan, ez da beti zuzena izaten, eta ez da egokitzen zure maskotaren inguruabarretara eta ezaugarrietara.

Osa garrantzitsua



Animaliaren identifikazioa

Espanian nahitaezkoa da txakurrak transponder edo mikrotxip bidez identifikatzea, animalia biziaren bizitzako lehen hiru hilabeteetan edo eskuratzeko garaian. Halaber, **katuak, hudoak eta beste hainbat espezie** identifikatzea ere **nahitaezkoa da hainbat autonomia erkidegotan**.

Mikrotxip bidezko identifikazioa **prozesu bizkorra eta segurua** da animalia biziarentzat, eta berreskuratzen lagunduko digu galduz gero; hori dela eta, **gomendagarria da** lagun egiteko animalia guztiak **identifikatzea, espezie horrentzat beharrezkoa ez izanagatik ere**.



Animalia ez identifikatzeak

indarrean den legedia ez betetzea esan nahi du

Kontuan izan behar duzu, animalia biziaren identifikazio fisikoaz egiteaz gain, **udalerririk askotan ezinbestekoa dela udal erroldan** erregistratzea.

Gogoratu erregistroko **datuak** (helbidea eta telefonoa) eguneratuta edukitzeaz, **baita heriotzaren** berri emateaz ere.

Animaliak beste herrialde batera **bidaiatzen duenean, lagun egiteko animalia biziarentzako Europako pasaportea eraman behar duzu aldean**, edo xede herrialdeak eskatzen duen **albaitari ziurtagiria**; hala, bidaiatzeko asmotan bazabiltza, ez utzi azkeneko unerako dokumentu hori.



Txertoak eta desparasitazioak



Albaitariak adieraziko dizu zer txerto eta tratamendu diren nahitaezkoak eta zein diren horiez gainera egoki izan daitezkeen beste batzuk, bai eta horien periodikotasuna ere; **eskuarki urtebetekoa izaten da txertoetarako, eta hiru hilabetekoa parasitoen kontrako tratamenduetarako.**

Autonomia erkidegoaren arabera alda daitezke **nahitaezko tratamenduak** artean, hauek dira alderik esanguratsuenak:



1. Amorruaren gaixotasuna

Animaliaren **heriotza** eragin dezake eta **pertsonak kutsa ditzake, hozka eginez gero**. Hori dela eta, **nahitaezkoa** da txakurrei **txertoa ipintzea** autonomia erkidego gehienetan, baita hudoei eta katuei ere, haietako batzuetan.



2. Ekinokokosia

Gaixotasun parasitario hau ez da oso ohikoa, baina animalietatik gizakietara **transmititu daiteke**; hori dela eta, haren **tratamendua** ere **nahitaezkoa da** hainbat autonomia-erkidegotan.



Gaixotasun horiez gain

badira **animaliei eragin diezaieketen beste batzuk**, eta garrantzitsua da horietatik babestea, txertoen eta parasitoen aurkako tratamenduaren bidez, haien osasun egoera bermatzeko.



Horien artean nabarmentzen dira **hepatitisa, leptospirosia, mukieria eta txakurren parbobirosia** eta **panleukopenia, errinotrakeitisa, kalizibirosia, leuzemia** eta **peritonitis infekziosoa** katuetan.

Animaliak **gaixotasun sintomak** ageri baditu (gorakoak, beherakoa, apetiturik eza, apatia, larruazaleko lesioak...) **joan berehala albaitaria-rengana**, eta ez eman inoiz botikarik, preskripzio medikorik gabe.



Izan kontuan


sendagaien dosiak eta **administratzeko irizpideak desberdinak** izaten direla, gizakiok ditugunekin alderatuta, eta giza medikuntzan erabiltzen ditugun botika **asko**, hala nola parasetamola, ibuprofenoa edota aspirina, **kaltegarriak** direla animalientzat.





Antzutzea edo zikiratzea

Animaliak **arduraz edukiko badira**, saihestu egin behar da animaliak jabeen baimenik gabe ugaltzea; halere, batzuetan ihes egitea lortzen dute, eta nahi ez diren kumaldiak izaten dituzte. Nahiz eta antzutzeak ugalketa galarazten duen eta beste hainbat abantaila ere eskaintzen dituen, jabe askok uko egiten diote, bolo-bolo ibiltzen diren mitoen edo informazio faltuen ondorioz. Hori dela eta, **funtsezkoa da albaitariarekin hitz egitea**, erabaki zuzena hartzen laguntzeko.



1. Kontuan izan behar da...

... **ebakuntza kirurgiko guztiek** izan ohi dutela **arriskua**, baina, zikiratzearen kasuan, **abantailak** gehiago dira eragozpenak baino. Hori hala, **albaitariak** adieraziko dizu zein denhorretarako unerik onena.



... animalia zikiratzeak **ez dio traumarik sortzen**, eta ez dio kalterik eragiten osasunean. Zure maskotak ez dio utziko arra edo emea izateari.

... animaliak **ez du** zertan **gizendu**, elikadura zaintzen badiozu. Gainpi-suaren arazoa, funtsean, **bizitza estiloak** eragiten du: gehiegi jan eta ariketa gutxi egin.

... eskuarki, lasaiago bihurtzen dira, batez ere arrak. Horrez gain, izaera ere aldatu egiten da adinarekin: **ez egotzi zikiratzeari berez ebakuntzak eragiten ez dituen aldaketak.**

2. Animalia bat antzutzearen onurak

- ▶ Animalia **lasaiagoa bilakatu ohi da**; hori dela eta, borrokarako ohitura gutxiago izango du (eta, ondorioz, zauri gutxiago). Halaber, **joera txikiagoa izango du ihes egiteko** (eta, hortaz, murriztu egingo da autoren batek harrapatzeko arriskua edo zirkulazio istripu bat eragitekoa).
- ▶ Bestalde, **emeek** ez dute izango **araldirik**; horrenbestez, ez dituzte arrak etengabe erakarriko eta borrokarik ere ez dute eragingo, edo, ihes eginez gero, ez dira umatuko. Era berean, **haurdunaldi psikologikoak saihestuko dituzu**.
- ▶ Halaber, **murriztu egiten da** obarioetako, umetokiko eta bularretako **minbizia** izateko **arriskua**, baita umetokiko **izatekoa**.
- ▶ **infekzioak ere emeetan**; arren kasuan, berriz, testikuluetakoko eta guruin perianaleko tumoreak gutxitzen dira.
- ▶ Halaber, arren **antzutze goiztiarrarekin**, **murriztu** egiten da gernua isurtzeko **jokabidea (markatzea)**.
- ▶ Era berean, **murriztu egiten da** animaliak **ugaltze xedeetarako osteko arriskua**.
- ▶ **Ez da izaten nahi gabeko kumaldirik**, eta, ondorioz, aurrezki ekonomikoa lortzen da ez dagoelako mantendu beharreko kumerik; ez dago jabe egokirik topatu beharrik kumaldiko kume bakoitzarentzat, eta, gainera, amari zein kumeei arretea egokia emateko lanak aurrezten dira.



Oso garrantzitsua da

neurriak hartzea, beranduegi izan aurretik. Ez da lan samurra kumaldi bat lagunaren artean banatzea. Gogoan izan: **nahi gabeko kumaldiak** dira **animaliak abandonatzeko arrazoi nagusia**.



Elikadura



Animaliek **elikadura osoa eta orekatua** izan behar dute, haien behar nutrizionale-tara egokitua. **Presta dezakezu** etxean zure animaliarene janaria; horretarako, animaliak **behar dituen** janariak ezagutu, erosi eta prestatu egin behar dira, harentzat bereziki pentsatuta prestatu ere. Horrek eskatzen du **zehatz-mehatz egin behar dela plangintza**, eta behar den **denbora** eskaini behar zaiola horri. Hala ere, merkatuan ugari daude **espezie** bakoitzarentzat bereziki pentsatuak, eta baikain **egokitzen dira** haien adinera, arrazara, neurrira, ariketa mailara eta egoera fisiologikora. **Garrantzitsua da albaitariari kontsultatzea**, elikadurarik egokiena zehazteko.

Elikagai **kopuruari** buruzko **argibideei jarraitu** behar zaie, baita aukeraturako pentsuaren **etiketan** ageri diren bestelako neurriei ere, animaliek eguneko elikagai errazioa jasotzen dutela bermatzeko.



Kontuan izan behar duzu

animaliek **beharrizan espezifikoak** dituztela, eta elikagai asko, guk arazo handirik gabe kontsumitzen ditugunak (txokolatea, tipula edo mahatsa, adibidez), **desegokiak eta are toxikoak** izan daitezkeela animalientzat.

Gainera, animaliak **ura eduki behar du eskura** une oro, eta edaten emateko **ontziak sarri garbitu behar dira**.

Aldaketarik nabari baduzu animaliak kontsumitzen duen elikagai eta ur kopurutan, kontu hartu, posible baita zure animalia **gaixorik egotea**.

Bizilekua



Animaliak libre dituen etxeko espazioek baldintza hauek bete behar dituzte:

Arriskurik ez izatea: saihestu egin behar da animaliak ihes egitea edo erortzea, bereziki terrazak edo balkoiak diren kasuetan, eta **produktu kimikoak** (arratoi pozoiak, izotz kontrakoak) edo **landare pozoitsuak** (adibidez, lirioak, katuen kasuan) eskura izatea.




Atsedeneremu eroso, garbia, lehorra, lasaia, argitsua eta korrontirik gabea izatea, eta temperatura kontrolatuta edukitzea.



Animalia baldintza meteorologiko txarretatik **ezkutatze** edo **babesteko** moduko **toki bat izatea**, baldin eta animaliak denbora gehien kanpoaldean ematen badu.



Atsedeneremutik kanpo, **eginkariak** egiteko **toki bat** edukitzea (etxe barruan egiten baditu).



Heziketa eta portaera



Animalien **portaera** aldatu egiten da espezie batetik bestera. Kontsultatu zalantzak **albaitariari**, behar beste guztietan. **Merezi du** hezten **denbora ematea eta ahalegina** egitea eskaintzea, epe ertain eta luzera. Animaliak abandonatzeko arrazoirik ohikoenetako bat portaera desegokia izatea da. Ondo landuz gero, saihesteko modukoa da.

Txakurren kasuan, funtsezkoa da txakurkumeak **12 aste** izan arte sozializatzea. Denbora horretan, pertsonekin ohitu beharko dute, beste txakur batzuekin elkarreragin, eta bizitza osoan topatuko egoeren eta estimulu- luen aurrean moldatu, beldur edo oldarkortasun **jokabideak saihesteko**.



Ondo sozializatzea

erabakigarria da bizitza osoan portaera egokia izan dezan



Bestalde, **katuen** kasuan, **sozializazio aldia 8 asteren buruan** amaitzen da; hori dela eta, hazlearen mende dago hori. Horregatik da hain garrantzitsua ziurtatzea egokiro lan egiten duen **profesional** baten eskuetatik datorrela.

Edonola ere, **egonkortasuna** bermatu behar zaio, **eguneroko errutinen** bidez; modu horretara, animaliak aurrekusi ahal izango du zer gertatuko den eta, etengabeko **ziurgabetasun eta alerta** egoera etengabea **saihestu**.

Gogoratu **hezitzaile gaituek eta baimenduek** bakarrik eman dezaketela **zaintzako eta defentsako** heziketa.

Beharrezkoa da

indargarri positiboak eta sariak emanez hezteak animaliak

Halaber, jakin behar duzu animalia **portaera eta izaera** aldatu egiten direla **adinarekin**. Txakurren kasuan, txakurkumearen portaerak bi urte egin arte iraungo du gutxi gorabehera.

Informa zaitez ea zure **udalerrian** baden **txakurrak hezteko ikastarorik**. Hezten irakasten laguntzeaz gain, aukera bikaina da beste jabe batzuekin esperientziak eta zailtasunak partekatze.



Ariketa eta jarduera

Animaliek beharrezkoa dute **egunero ariketa egitea**, haien ezaugarrien arabera.

Txakurrek, ariketa egiteaz gain, beharrezkoa dute **miatzeko jokabidea** garatzea, paseatzen ari diren bitartean topatzen dituzten **usainen** bidez. Hori dela eta, ez da nahikoa lorategi bat izatea, nahiz eta oso handia izan. Beharrezkoa dute irtetea, **estimulu berriak jasotzeko eta** beste animalia eta pertsona batzuekin **sozializatze**ko.



Halaber, **jostailu seguruak** izan behar dituzte, mastekatzeko modukoak. **Jolasaren** zati batek **interaktiboa** izan behar du, beste animalia eta pertsona batzuekin jarduteko modukoak..

Katuek hazkagailu bertikalak izan behar dituzte, erresistenteak, **plataformak** garaieran, **ezkutalekuak eta jostailuak**, **ehizarako** berezko **gaitasunak** gara ditzaten.



Lagun egiteko
animaliak

gizartean



Lagun egiteko animaliak gizartean

Lagun egiteko animalia zure etxean biziko da, eta, horrez gain, gizartearen parte ere izango da. Hori dela eta, hainbat alderdi izan behar dituzu kontuan:

Etxebizitzan



Baliteke animaliek **bizilagunei traba egitea**, nahiz eta etxetik irten ez, dela zaratagatik (txoriak kantuan, zaunkak), dela sortzen dituzten hondakinengatik (ugaztun txikien gorotzak edo txorien zirinak).

- ▶ Bizilagunen **erkidegoko arauak**, animaliak edukitzeari buruzkoak.
- ▶ Zure **udalerriko animaliei buruzko ordenantza**; beste hainbat alderdiren artean, animaliak non ez eduki zehazten dute, (esate baterako, balkoietan).




Gogoratu, jarri bitartekoak

ihes egin ez dezan eta, hiltzen denean, hilotza egokiro kudeatzeko.



Bide publikoan eta establezimenduetan

Animaliak etxetik maiz atera behar baldin badu (adibidez, txakurra bada), ondo ezagutu behar dituzu animaliak **paseatzeko arauak**, bai eta **baimenduta** dauzkan **eremuak** ere.



Oso gomendagarria da

identifikazio plaka bat eramatea lepokoan, izena eta harremanetarako telefonoa dituen.

Autonomia erkidegoek presta dezakete potentzialki arriskutsuak diren animalien edo txakur arrazen zerrenda bat; hori dela eta, jakin beharko duzu zein diren zure animaliarekin zoazen toki bakoitzean aplikatzen diren eskakizunak.

Txakur potentzialki arriskutsuek muturrekoa eraman behar dute, bai eta lepoko luzaezin bat ere, bi metro baino laburragoa.

Informa zaitetz **zer merkataritza establezimenduk onartzen dituzten animaliak**, jabeek nolabaiteko aukera baitute animaliak debekatzeko edo mugatzeko. Gogoratu pertsona guztiek ez dutela onartzen animaliekin kontaktua izatea, eta, nahiz eta onartuta egon, une oro zaindu behar duzu, nahi ez duten pertsonekin interakziorik egon ez dadin.



Eta, azkenik, BETI jaso behar dituzu animaliak bide publikoan utzitako eginkariak.

Garraiatzean



Animaliak **autoan bidaiatu behar duenean**, bidaiatzeko baldintza fisiko egokian baldin badago, **bide segurtasuneko** araudiari jarraituz egin beharko du. Informa zaitez dituzun aukerei buruz, animalia-aren neurriaren eta zure ibilgailuaren ezaugarrien arabera³.

Ez utzi inoiz animalia bakarrik autoaren barruan

Txakurrek oso ondo jasaten dute hotza, baina oso gaizki beroa, eta baliteke **deshidratatzea 15 minuturen buruan**. Kontuan izan kanpoan 22 °C direnean, auto barruko tenperatura 47 °C-ra irits daitekeela ordubeteren buruan.

Horrez gain, **informatu** beharra dago **larrialdietarako albaitaririk** ba ote den **behin-behineko egonaldiko tokian**, haren **harremanetarako datuak** eskura izateko, premiaren bat sortuko balitz ere.

Zure hirian ibiltzeko

beharrezkoa da autobusen, metroaren edo bestelako garraio-bideen araudia ezagutzea, aldatu egin baitaiteke udal-erri batetik bestera.

³ "Zein da zure maskota garraiatzeko modurik seguruena?"
<http://revista.dgt.es/es/sabia-que/dudas/2013/mascotas-en-el-coche.shtml#.WbkWS5sUmUk>

Gogoan izan honako alderdi hauek, bidaiatu nahi baduzu:



1. Lagun egiteko animaliarik gabe

- ▶ **Katuek** nahiago izaten dute **etxean geratu** eta norbaitek zainduta egon.
- ▶ Txakur baten kasuan, hobe da konfiantzazko norbaitekin uztea edo **baimendutako egoitza** batera eramatea.
- ▶ Bestalde, **arrain ontzien eta terrariumen** kasuan, ziurtatu **norbaitek zaintzen dituela** aldian-aldian, egiaztatzeko ez dela izan matxurarik edo hornidura energetikoko mozketarik, mantentze lanetako sistemen funtzionamenduari eragin dionik (tenperatura, argiak, elikadura eta abar).

2. Lagunduta eta beste herrialde batera

- ▶ Eraman aldean **lagun egiteko animalien Europako pasaporte** edo **albaitariaren ziurtagiria**, xede herrialdeak hala eskatzen badu.
- ▶ Informa zaitez irten aurretik zer **eskakizun** bete behar diren herrialde horretara joateko eta ondoren Europar Batasunera bueltatzeko⁴. Plan-gintza behar bezala egin ezean, posible da animalia Espainian sartu ezinik mugan geratzea.



⁴ Lagun egiteko animaliekin bidaiatzea: araudia eta informazioa
<http://www.mapama.gob.es/es/ganaderia/temas/comercio-exterior-ganadero/desplazamiento-animales-compania/default.aspx>



Lagun egiteko

animaliak edukitzeari

buruzko

aholkuak

arduraz · edukitzed



#eresresponsable
eresresponsable.es

GIPUZKOAKO
ALBATARIEN
LEGEZKO
ELKARTE
GORENA



ILUSTRE
COLEGIO
OFICIAL DE
VETERINARIOS
DE GIPUZKOA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE AGRICULTURA, PESCA
Y ALIMENTACIÓN

CENTRO DE PUBLICACIONES
Paseo de la Infanta Isabel, 1 - 28014 Madrid